Helduak Zabaltzen

Udalarekin harremana

EUSKO JAURLARITZA
ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR, JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



Figura tekniko edo profesionalak

Udala

Gizarte zentroek askotariko **harremanak izaten dituzte udalekin**. Zentro gehienak udalek **utzitako guneetan** daude, herritarren beste erakunde batzuk bezala. Udalek herri elkarteak babesten dituzte, eta gune publikoen erabilera lagatzen diete, haien jarduera gauza dezaten. Hori izan ohi da, kasu askotan, herriko udalaren eta gizarte zentroen arteko oinarrizko harremana Euskadin.

Zentro horietako batzuetan, udalek ere **figura profesional bat** jartzen dute **dinamizatzeko**, haien helburuak lortzen eta jarduera kudeatzen laguntzeko. Figura profesional horiek plangintzan, dirulaguntzak kudeatzen, erabiltzaileak gidatzen eta zenbait jardueratan laguntzen dute (hurrengo atalean zehazten da zeregin profesional hori).

Udalen ohiko beste zeregin bat **dirulaguntzak ematea** da, ekipamenduetan eta kudeaketan laguntzeaz gain. Eta, kasu batzuetan, hauexek dira udalaren eta gizarte zentroen arteko loturaren ardatzak: **estrategia partekatuak diseinatzea, batera esku hartzeko ekimenak eta bien arteko informazioaren transmisio formal eta sistematikoa**. Udala **gizarte zentroaren gobernantza egiturako partaide** ere izan daiteke.

Halere, udalarekin ia **harremanik ez duten** gizarte zentroak aurkitzea ere ohikoa da, eta, ondorioz, bi aldeek ez diote probetxurik ateratzen baliabide komunitario horiek sustatzeko elkarlanari.



Esperientziak

Udala funtsezko eragilea da gizarte zentroetan ikuspegi komunitarioa sustatzeko eta haiek auzoko baliabide gisa irekitzen laguntzeko. Hori dela eta, Helduak Zabaltzen ekimeneko zenbait pilotajetan, harreman horretan jarri da arreta, ondoren azaltzen den bezala.

Eibar

Eibarrek, zentroen eredua eraldatzen hasi aurretik, koordinatzaile bat zuen, Biztu, herriko gizarte zentroek eta udaleko ordezkariek —kasu honetan, gizarte zerbitzuetako zuzendariak— osatua. Gune edo foro horrek ez zuen behar bezala betetzen sortu zenean zuen helburua. Gainera, udalarekiko harremanak lokalen lagapena eta dirulaguntzak ematea zituen oinarri, batez ere.

Erronka nagusietako bat **zentroen eta udalaren arteko komunikazio kanalak** ziren; izan ere, zentro bakoitzak hurbilen zuen figurara jotzen zuen, kasu batzuetan figura tekniko batengana, beste batzuetan figura politiko batengana, inolako ordena finkorik gabe.

Gaur egun, berriz, zentroen eta udalaren arteko koordinazio hobea dago, komunikazio kanal bateratuak ezarri baitira gizarte zentro guztientzat.

Gainera, gizarte zentroetako ordezkariak eta udaleko teknikari eta politikariak hilero biltzen dira eraldaketa prozesuan lan egiteko, eta jarduera batzuk ere antolatzen dituzte elkarrekin.

Arratzu

Arratzuk Helduak Zabaltzen proiektuaren pilotajean hartu zuen parte. Horren kasua berezia da, ez baitu bere **jarduerak garatzeko leku fisikorik edo lokal propiorik**.

Helduak Zabaltzen ekimenaren pilotajea hasi arte, elkartearen eta udalaren arteko harremana bi alderdi espezifikotan oinarritzen zen: batetik, elkarteak berak programatutako ekintzak edo jarduerak martxan jartzeko dirulaguntzetan, eta, bestetik, udalerriko erabilera anitzeko gunea erabiltzeko baimenetan.

Baina eraldaketa prozesua hasi zenean, talde eragile bat sortu zen, eta bertan, elkarteko zuzendaritza ez ezik, udala ere ordezkatuta dago.

Horri esker, hasieratik elkarrekin hausnartu dute elkartearen erronka nagusien inguruan. Gainera, herriko adinekoen beharrak aztertu dituzte, horiei erantzuteko eta dagozkien ekintzak martxan jartzeko.

Ekintza horien adibide dira honako hauek: **mankomunitateko gizarte zerbitzuekiko koordinazioa, dauden baliabideak ezagutarazteko**; belaunaldien arteko txokolate jana, normalean komunitatean parte hartzen ez duten adinekoen harremanetarako gunea izan dadin, eta udal mailako agenda partekatua sortzea. Lokal propio baten beharra mahai gainean egon da prozesu osoan zehar, eta, momentuz, elkarteak une jakin batzuetan erabilera anitzeko gunea erreserbatzeko aukera izatea aztertzen ari dira.

Erandio

Erandioren kasuan, Altzagako adinekoen gizarte zentroaren eta udalaren arteko harreman hurbilagoa sustatzeko erronkari lehentasuna ematea proposatu zen. Horretarako, beharrezkotzat jo zuten **talde eragileak** zentroko bizitzarekin lotura duen **udal teknikariren** bat sartzea. Kasu honetan, zeregin hori gizarte langileari egokitu zitzaion.

Talde eragilearen bilera guztietan parte hartu zuen, eta figura horren eta adineko pertsonen artean hurbiltasun handiagoa sortzeko beharra landu zen; izan ere, adinekoek, batzuetan, ez dute udaletxera joan nahi izaten, eskura dituzten laguntzei edo baliabideei buruzko informazioa jasotzera.

Kasu honetan, gizarte zentroa leku seguru eta aukera gune gisa nabarmendu zen, gizarte langileak udalerriko adinekoentzat interesgarriak diren alderdiei buruzko hitzaldiak emateko eta, horrela, udalera joateko zailtasunik gehien dituztenengana hurbiltzeko. Jarduera elkarrekin eta elkarlanean antolatzea oso positibotzat jo zuten talde eragileko pertsona guztiek, ekintza mota hori denboran zehar mantentzearen potentziala ikusi baitzuten.

Portugalete

Portugaleten udal kudeaketaren zuzeneko esperientzia dute, eta zahartze aktiboa sustatzeko baliabide publikoak dituzte. Horietan, zentro bakoitzak **adinekoen udal kontseiluan duen ordezkaritzaren** bidez hartzen du parte.

Kontseilu hori Portugaleteko adinekoek parte hartzeko talde bat da, eta hobetu daitezkeen gauzei buruzko aholkuak ematen dizkio udalari.

Alderdi politikoen ordezkariek, Portugaleteko adinekoen elkarteek eta Portugaleteko auzoetan banatuta dauden gizarte zentro bakoitzean aukeratutako pertsonek osatzen dute. Azken horiek zentroetan ematen diren zerbitzuen erabiltzaileak dira. Taldea parte hartu nahi duen edozein adinekorentzat dago irekita.

Formula hori EDADEKO programaren barruan sartzen da, eta udalerriko bost gizarte zentroentzat bultzada handia izan da, parte-hartzeak eta kide kopuruak gora egin baitute.

Figura profesionalak

Udalarekiko harremanez gain, interesgarria da figura teknikoen beste zeregin batzuetan jartzea arreta. **Dinamizazio figurek** funtsezko zeregina izan dute eta betetzen dute gizarte zentro askoren bizitzan, nahiz eta horien funtzioak udalerri batetik bestera desberdinak izan.

Oro har, honako eskumen hauek izan ditzake:



TALENTUA ETA INTERESAK IDENTIFIKATZEA

WhatsApparekin laguntzen diela kideei konturatu naiz.



PROPOSATU ETA ZABALDU

Ideia zehatza proposatzen diot, nola lagundu dezakeen azaltzen diot eta zentroan partekatzen dut.



HAUSNARTU ETA PLANGINTZA EGIN

Komunikazio-batzorde bat, teknologia berrien tailer bat... egiteak zentzua izango lukeen pentsatzen dut.



LAGUNDU ETA BABESA EMAN

Kartelak jartzen ditut, beste pertsonei komentatzen diet, espazioak bilatzen ditut, batzordekideekin hitz egiten dut.



Parte-hartzea sustatzeko figura oso erabakigarria izan daiteke. Honela zehaztu **daitezke parte-hartzea bultzatzeko** zeregin berri horren funtzioak:

- Erabiltzaileek jarduerak, lan batzordeak eta boluntariotza aukerak sortzeko dituzten **gaitasun eta ahalmenak identifikatzea**, pertsona bakoitzaren berezitasunetan oinarrituta.

- **Informazioa biltzeko hainbat bide zehaztea**, orain arte zentroan egiten ez ziren beste pertsona batzuentzako jarduera esanguratsuak detektatzeko.

- **Bitarteko partaidetza organoetan eta/edo boluntariotzan** parte hartzen duten pertsonei logistika eta koordinazio alderdietan **laguntzea.**

- **Komunitateko beste eragile batzuekin harremanak ehuntzea** errazten du, zentroa komunitateari irekitzeko.

- Erabiltzaileentzat identifikatutako **jarduera esanguratsuetakoren bat martxan jartzea.**

- **Parte hartzen duten figuren arteko koordinazioa sustatzea**, talde bakoitzaren informazioa zentralizatuz eta besteei zabalduz, eta/edo taldeen arteko topaketak sortuz/kudeatuz.

- Erabiltzaileek **izan ditzaketen laguntza eta baliabide beharrak identifikatzea**, eta zerbitzuak bideratzeko lanak egitea, lehen mailako arretako gizarte eta osasun zerbitzuekin lankidetzan.

Kasu batzuetan, figura hori finkatzeak nolabaiteko beldurra sortzen du, bazkideak ordezkatuko ote dituzten edo protagonismoa kenduko ote dieten. Baina kontuan izan behar dugu figura horren **funtzioa beste gobernantza egitura batzuei laguntzea dela, baita lana erraztea eta bidean laguntzea ere, eta ez zentroaren osotasuna kudeatzea**.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO